

# Geltoki birtualetik



Nagore Amondarain

Ez dakit zein planetatik edo espazioko geltoki birtual batetik, orain arte behinik behin lurra deitzen zaion planetara begiratuez gero, Txinako harresia ikus genezake, Egiptoko piramideak, Greziako partenoia... eta ez dakit zenbat harribitxi. Txiki-txiki ikusiko dira baina desberdintzeko beste. Txoriak hegazka ikusten dira adi jarrita eta tartetik meteorito edo izar iheskorrek lausotu egingo dute lurrerainoko paisaia zoragarri hori. Euliak udako egun sargorian bezala begietatik kentzen ibiliko gara meteorito hauek, espaziotik lurra begizatzea ez baita

gauza erraza. Sumendiak ikusiko ditugu bor-borka, jendearen poza balitz legez, baina bat-batean su hori barrikadetan edo erraustegietan edo errepideetako kean islatua bezala ikusten dugu. Miopeen antzera begirada ixtearen ahaleginez, hobeto enfokatuko dugu eta etxeoandre kontzientziatu bat ikusiko dugu konposta egiten, haren herri berean zabortegei erraldoia kea dariola ikusten dugun bitartean. Abiadura handiko trenan laster batean bertatik ibiltzearen langileak ikusiko ditugu lan eta lan eta lur horien bazter bazterrean nekazaria lanei so. Nekazariari laguntza ematera datorren herritar taldea begizatuko dugu, beste aukera batzuk posible direla esanez.

Haurrak izar iheskorren antzera kalea zeharkatzen nabaritutako ditugu, oso txiki, txakurrengandik ezin bereiziz. Baina umeak ote dira edo pilula bidez elikatzen diren gizaki transgenikoak? Ezin ezer bereizi espazioko geltoki birtual honetatik.

Berdeguneen ordez, aldiro-aldiro lursailak soiltzen ari direla jabetzen da bat urrun honetatik. Lurra gero eta gorriago, gero eta soilago ari baita geratzen, betiko harri bitxiak lagun baina soilago. Hor jarraituko dute harresi handiak, partenoiak eta piramideek baina desertu handiaren erdian geltoki hutsak baino ez dira izango. **F**